

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abuztuaren 28a

84 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Toki Itunetarako Departamentuarteko Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, udal zerbitzuak bateratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

I S A I L A:

Parlamentuko Jarduera:

- 2002ko uztailean egindako bilerak (6. or.).
- 2002ko uztailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (6. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1. Gizarte Ongizatearen Departamentuak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ba al

dakite Nafarroako Gobernuaren zentro berekiez arduratzen diren enpresa pribatuak kobratzen ari ote diren langile kontratatu berrien lanpostuetarako prestakuntza ikastaroak?

Ez dugu horren berri.

2. Nafarroako Gobernuko zentro berekietan gizarte zerbitzuak emateko adjudikazioa jaso duten merkataritza entitateek kontrataturiko langileei lanposturako prestakuntzaren kostuak bere gain harrarazteari zer irizten dio Gizarte Ongizatearen Departamentuak?

Departamentu honek ezin du iritzirik eman galderak aipatzen duen prestakuntza mota zehazten ez den gai batean; horrez gain, lanposturako prestakuntzaren kontzeptua oso zabala da eta lan hitzarmenen barreneko afera da; beraz prozesu horretan erabakitakoari lotuko zaio.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Galdera, Toki Itunetarako Departamentuarterko Batzordeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak Toki Itunetarako Departamentuarterko Batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera egin du Toki itunetarako departamentu arteko batzordeari buruz. Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna.

Zuzendari nagusiek erantzun diete transferitu daitezkeen eskumenei, baina horien kostua eta izan dezaketen finantzabideak hortik ateratzerik ez dago, toki itunaren muina borondatzeko izaera delako, eta eskumen guztiak ez dira udal guztiei transferitzeko modukoak.

Toki itunaren inguruan, halaber, azterlanak egin dira Foru Komunitateko arauak, arlo honetakoak, estatuko arauekin parekatzeko; azterlan horren zirriborroa eman zitzaion zure alderdiari eta horrek, zenbait emendio egin ondoren, lege proposamen gisa aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak hemendik gutxira bidaliko du parlamentura funtsari buruzko legerako proposamen berri bat, toki entitateen finantziazio egonkorra bermatzeko hurrengo bi urteetan.

Orobat Toki administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzeko lege proiektua aurkeztuko du.

Kodes eta Izarbeibarko zerbitzu mankomunitateen eraketa toki itun berezi baten emaitza izan da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean.

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, udal zerbitzuak bateratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak udal zerbitzuak bateratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera egin du udal zerbitzuak bateratzeari buruz. Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna.

naz Echarri jaunak galdera egin du udal zerbitzuak bateratzeari buruz. Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna.

1. Zein dira gobernuaren planak, 2002. urterako, zerbitzuak elkartzearen inguruan?

Legegintzaldi honetako aurreko ekitaldietan bezalaxe, eta Foru Parlamentuak aho batez adierazitakoari jarraikiz, alegia Nafarroako toki entitateetan administrazio-berrantolaketa prozesuak borondatzeko eta parte hartzeko printzipioen arabera ezartzearen aldeko apustuari jarraikiz, Gobernuaren plana, batez ere, Toki Administrazioiko Departamentuaren estrategiari jarraipena ematea da, Udal Zerbitzuak Bateratzeko Zerbitzuak kontzientziario lanak eginez udal ordezkari

riek proposamenarekiko jarrera ona erakutsi duten tokietan. Departamentuaren proposamena, funtsean, "mankomunitateak" osatzea da, mankomunitateko kide diren udalek elkarren artean ordain dezaten administrazio zerbitzuen eta egokitzat jotzen direnen prestazioa zentzuz eta ahal den etekin handiena atereaz antolatzeke behar diren langileen kostua.

Kodes Mendietako eta Izarreibarko udalek osaturiko administrazio zerbitzuen mankomunitateen elkarte proiektuetan ageri diren aurreikuspenak gauzatu eta sendotzeak bide emanen dute esperientzia horiek zabaltzeko eta, horren ondorioz, espero dugu emaitza on gehiago lortzea, kontzientziario lan horien eta proposatutako elkartze prozesuak bere gain har ditzaketan toki entitateen hausnarketaren haritik.

Erreferenteak, lehen aipatutakoen gisakoak, izateak lagundu du departamentuak zenbait jardute esparrutan departamentuak hasitako beste elkartze prozesu batzuk burutzea eragozten.

2. Zenbat udaletan izanen du eragina? Zein dira eta nola elkartuko dira?

Elkarketa izaerako antolakuntza diseinuaz hausnarketan hasiera batean interesa izan duten toki entitateekin lan batzordeak eratzeak ez du inola ere bermatzen ekimenaren arrakasta, horien izaera borondatezkoa izaki.

Borondatezko izaera horri zor zaion begiruneak galarazi egiten du zehaztea gobernuaren planek zenbat eta zein udaletan izanen duten eragina.

Udal zerbitzuak bateratzeko Gobernuak proposatu duen mota "mankomunitatea" da, borondatezko izaera duen elkartze formula jatorrenetan jatorrena baita.

3. Zein zerbitzu elkartuko dira kasu bakoitzean?

Toki Administrazioiko Departamentuak sustatzen duen proposamena, alegia, borondatezko mankomunitateak eratzea, hastapenetan badago ere, gaur arte eratutako mankomunitateen estatu-tuei jarraikiz, horien xede soziala da "hura osatzen duten udalek elkarren artean eman eta ordaintzea administrazio zerbitzuak, idazkaritza, kontu-hartzailetza eta diruzaintzako eginkizun publikoetatik heldu direnak, bai eta zerbitzu horietako laguntza langileak eta mankomunitateko kideek espresuki erabakitzen dituzten aholkularitza teknikoko gainerako zerbitzuak ere".

4. Zerbitzuak mankomunitateen bidez elkartu diren kasuetan, orain artekoetan, langileak legeria indardunaren arabera kontratatu direla uste du gobernuak?

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuaren ekimenez gaur arte eratu diren administrazio zerbitzuen bi mankomunitateetan diseinatu eta itxuratutako langileriaren kontratazioa, haien elkartze proiektuen aurreikuspenekin eta elkarte entitate berriek onetsiriko plantilla organikoekin bat, egun indarra duen araudiari jarraikiz dago egina, eta hautatze prozeduran Toki Administrazioiko Departamentuak berak hartu du parte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean.

Toki Administrazio kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera egin du udal batzuetako idazkarien bitartekotasunari buruz. Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna.

Toki administrazioari buruzko Foru Legeak idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak betetzeari eman beharreko soluzioa Nafarroako udal mapak behar duen arrazionalizatzea egin arte atzeratu du.

Nafarroako Gobernua lanean ari da mapa arrazionalizatzen borondatezko zerbitzu mankomunitateak sorrarazten dituzten toki itunen bidez.

Beharrezkoa da bide horretan aurrera egiten jarraitzea, toki entitateen nahiak ezartzen duen pausuan, Nafarroako udal idazkarien bitarteko egoerei irtenbideak bilatzen hasi baino lehen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean.

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko uztailean egindako bilerak

BATZORDE IRAUNKORRA

22an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 22 eta 31n.

2002ko uztailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Galdera, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legeko 8. artikuluaaren aplikazioari buruzkoa. Cristóbal García jaunak aurkeztu du.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, erlijio irakasleen lan egoeraren aldatetari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 'biharamuneko pilula' eman dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki

honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikertzaileei prestakuntza bekak eman beharrean lan kontratua egin diezaien”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehien-goia eskuratzeko”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanaldia murrizte-ari buruzko legedia bete dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004ko Etxebizitza Planean sar ditzan Parlamentuak etxebizitza arloan onetsitako erabakiak”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernuak premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistetzako (MIR)”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, droga-zaleenganako arretoa dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarriko legedia bete dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearen-tzako”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: : “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehie- nez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nazioko Gobernuari eskatzera Unibertsitateei buruzko Lege Organikoaren proiektuaren azterketa sakona egiteko behar diren neurriak har ditzan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den

Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta 'ekonomia soziala'".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da argiteria instalazio eta aparatuen arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da "Nafarroako liburutegi publikoen eredu" izeneko proiektua bultzatzea".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan Junior-Enpresak sustatzeko neurriak ezar ditzan".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gortek gasolinaren gaineko zerga igotzeko hartu den neurria arbuizten dute".

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan".

roako Gobernuaren premiaz da Antsoingo udal-lerria hartuko duen oinarritzko osasun eskualde berri bat era dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Industrializazio Plana bidal dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturalerako ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du hurrek amaren esnea hartzea”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da trafikoen arloko eskumen osoa eskuratzeko emandako hitza bete dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Parlamentuari Nafarroako ondarea babesteko lege proiektu bat bidal diezaion”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldatetara molda dezan”.

– Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak aurkeztua, jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan”.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Navarra y el vasconce” opuskulua, Víctor Manuel Arbeloak sinatua, argitaratzeko kostuari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, galzori hainbat espezie berreskuratzeko planak taxutu eta onesteari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, natur erreserba eta lekuneak Natura 2000 ekologia-sarean sartzeari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Erronkarin ipar eskiko zentro bat sortzeak ekarriko dituen lege aldatetei buruz Batasuna

Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak egiteari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, barrutietan ehiza antolatzeako planak egiteari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko ingurugirozaintzako lanpostu hutsak betetzeko asmorik dagoen jakiteko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Ekosistema ibaitarrei eta florari buruzko natur habitaten Foru Lege proiektua igortzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Mendebaldeko Pirinioko natur parkea sortzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, udal hondakindegietara hondakin geldoak botatzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, minusbaliotasuna duten neba-arrebak hartzen dituzten familia-unitateentzako laguntza fiskalei buruz foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Fustiñanan krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Legea oinarri hartuta eman diren dirulaguntza eta abalei buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Talde Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, ikerketarako eman diren dirulaguntza eta diru aurrerakinei buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera Bardeako natur baliabideak antolatzeako plana aldatzeko Parlamentuak emandako agindua betetzeari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Peña mendiko barrutiari foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, natur erreserba eta lekune guztiak Batasunaren Intereseko Leku (BIL) izateko proposamenen sartzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, hainbat parke natural deklaratzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, ehiza-hesiak debekatzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, galzoriko hainbat espezie berreskuratzeko planei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, mehatxaturiko espezieak berreskuratzeko zentroen araudiari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, basa fauna babesteko eremuen barruko instalazioak kentzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztua, Gazteen elkarten jarduerari ematen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Haren bitartez, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde bereziko deia egin dadin eskatzen du, Nafarroan gerra zibilean fusilatutako pertsonei buruzko txosten bat egin dezan.

– Euzkolan mobiliario, SLren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Antunez mobiliarioaren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– MBA ofizinasen proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

2an:

– Adierazpen instituzional baterako proposamena, askatasunarekin eta demokraziarekin konprometitzeko, ETAren terrorismoa arbuiatzeko eta Alderdi politikoei buruzko lege organikoaren edukiarekin bat egiteko.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren agerraldia eskatu du, Kontuen Ganbarako lehendakariak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena azal dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako Lurralde Estrategiaren arduradunen agerraldia eskatzen da, dokumentua prestatzeko lanen berri eman dezaten.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia eskatu du, irakaskuntza itunduko irakasleen artean lan orduak berdintzeko analogia prozesu bati ekitearen aplikazioari buruzko informazioa eman dezan.

– Montte equipamiento integralen proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Almadia, SLren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Asier Mobiliarioren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Dyna Mobil en proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Local Diseño, SLren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Paymo, SAren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Propuesta de M-40 equipamientoren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Econova Reciclados, SLLren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Cador, SAren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Bordonabe, SAren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa, Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

–Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko taldeen idazkia; haren bitartez, Betelu, Calleja, Invade eta Iriarte jaunekin lan bilera bat egitea eskatzen dute, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen behin-behineko egoerari buruz informa dezaten.

–Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko taldeen idazkia; haren bitartez, Osasun kontseilariaren agerraldia eskatzen dute, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen behin-behineko egoerari buruz informa dezaten.

3an:

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunak aurkeztutako idazkia. Horren bitartez, obrak egiteko epe orokorrean luzatzea eskatzen du.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunak aurkeztutako idazkia. Horren bitartez, obra zerbitzu ezberdinak exekutatzeko jarraitutako tramiteak azaltzen ditu.

4an:

– Industrias Gama, SAren proposamena, Nafarroako Parlamenturako altzariak erosi, hornitu eta instalatzeko lehiaketa dela eta.

– Mozioa Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko taldeek aurkeztua; haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itxaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itxaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko informazioa eman dezan.

– Kontuen Ganbarak igorritako fiskalizazio txostena, Lizarra-Azagra osasun garraioaren kontratazio-espeditetari buruzkoa.

– Diego Bueno de Miguel jaunaren idazkia, eskola kanpainetan parte hartzen dutenek “La Contienda” izeneko parajeen ipar eskian aritzeari buruz.

– Iruñeko Udaleko Ingurumen eta Osasun alorreko zinegotzi delegatuaren ebazpena, Arrieta kaleko 12. zenbakiko eraikineko igogailuen funtzionamenduari buruzkoa.

5ean:

– Local Diseño, SLren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Mieresko Udalaren erabakia, Mendebaldeko Saharako gatazka dela eta.

– Nafarroako Gobernuak 2001erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren indarraldia 2002ko ekitaldirako luzatzeko erabilitako prozeduran legeak betetzeari eta, bereziki, luzatze horretan aplikaziorik gabeko kreditu izenekoak sartzeari buruzko aholku txostena, Kontuen Ganbarak emana.

– Asier Mobiliarioren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Sartagudako Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruzkoa.

– Mobiliario de Oficina Pascualen idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Paymo, SAren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– J. Antunezen idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– M-40 enpresaren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Nafarroako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bateratua onesten duen Foru Dekretu Legegila, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, “Nafarroako Gobernua Industrializazio Plana bidal dezan premiatzen duen erabakiari” buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko sinaturiko kontratuari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, herrilaren enpresa adjudikazio-hartzailetan eta itun bidez zerbitzu publikoak ematen dituz-

ten enpresetan izaniko lan istripuei buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Bordonaberen idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Xarelan Kulturgintza, SLren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Jeviten idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

11n:

– Almadía, SLren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– Villatuertako Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruzkoa.

12an:

– Cadore-en idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

15ean:

– Las Tres Marías Cibercafe, SL, L.ren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Gedasen proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Burlatako Udalaren osoko bilkurak hartutako erabakia, funtzionarioen eskubide pasiboaren araubidea gaurkotzeari buruzkoa.

– Illes Balearsen Parlamentaren idatzia, lehendakariaren konferentzia dela eta.

– Idazkia, Senatuarena. Horren bitartez, Senatuaren Osoko Bilkuraren 2002ko irailetik abendura bitarteko jardueren egutegia igorri du.

– Castejónko Udalaren erabakia, Mendebaldeko Saharako gatazka dela eta.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Horren bitartez, Estatuko Gobernua langabeziaren ondoriozko babes eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan premiatzen duen erabakia jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Horren bitartez, Estatuko Gobernua langabeziaren ondoriozko babes eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan premiatzen duen erabakia jaso izanaren berri eman du.

– Grupo Corporativo GFI Norte, SLren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Euzkolan Mobiliario, SLren idazkia; harekin batera, eskatutako dokumentazioa.

– CS-ACR Enpresen Aldi baterako Batasunaren 18. idazkia. Harekin batera, Iruñeko entzutegi izandakoa Nafarroako Parlamentuko egoitza izateko zaharberritu eta egokitzeko obren 2002ko maiatza eta ekaineko ziurtagiria.

– Procromática S.A.aren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Interlínea 2000ren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Copysan Comunicaciones, SLren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

– Guillermo Navarro Úbedaren proposamena, Aldizkaria digitalizatzeko.

16an:

– Esprontzedako Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearekin, arte ederretako museoari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, ekaineko zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen dituzten, erabaki agindu eta ebazpenen jakinarazpenak igortzen ditu.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, San Fermin jaietan Iruñeko zezen plazan eginiko zezen-ikuskizunetarako baimen eskariei buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioaren gehigarriak.

17an:

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, batzorde iraunkorra biltzeko presako deialdia egitea eskatzen du, Euskadiko autodeterminazioari buruzko proposamenari ezezkoa emateko.

18an:

– Adierazpen instituzionala egiteko proposamena, Parlamentuak adieraz dezan autogobernuaren alde lan egiten jarraitu nahi duela. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Entzutegi probintzialaren dilijentzia, Jorge Esparzaren aurkako autoari buruzkoa.

22an:

– Autogobernuari buruz Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakia arbuizatzeko adierazpen proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Villatuertako Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruzkoa.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Lan kontseilariaren agerraldia eskatu du, Martzilla berrindustrializatzeko kudeaketak eta ACSAko langileak kanporatzeko espediente zertan dauden azal ditzan.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez eskatzen du lan bilera bat egitea, UGT, CCOO eta ELA sindikatuetakoren ordezkariekin, ACSA enpresaren egoera azal dezaten.

– Euskal Herriko Bakeraren aldeko Koordinakundearen idazkia; harekin batera, alderdi politikoaren batasunaren aldeko dokumentua.

23an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, estatutu-itunari buruz Eusko Legebiltzarrak hartutako ebazpeni buruz hartutako erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, munduko pilota txapelketari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearekin eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruz Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako Gobernuak biharamuneko pilula eman dezan Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, farmazia-eskaerak ebazterakoan Nafarroako Gobernuak zenbait irizpide kontuan izan ditzan Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako Gobernua meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako Gobernua MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako tutorearen figura arautu dezan premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena bere gain har dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Antsoingo udalerrria hartuko duen oinarritzko osasun eskualde berri bat era dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan zerbitzu onkologikoak eman ditzan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak batera-

tzeko aukera azter dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea –hurrek amaren esnea hartzea babestu, sustatu eta bultzatzen du– zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldaketetara molda dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuan hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia; harekin batera, laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

24an:

– Eusko Legebiltzarraren idazkia; harekin batera, autogobernuari eta estatutu-garapenari buruzko txostena.

– Allingo Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruz.

– Administrazio Publikoen Europako Institutuaren idazkia; harekin batera, genero berdintasunari buruzko mintegi bati buruzko informazioa.

– ACSren idazkia, uztailaren 3ko eskutitzetik aurrera betetako tramiteak adierazten dituen.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, zenbait alderdi ekonomiko direla- eta Osasun Departamentuak Nafarroako Gobernuari igorritako dokumentuari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Foru Lege proiektua, Turismoari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak igorria.

26an:

– ACS-ACR aldi baterako enpresen batasunaren berraztertze errekurtsoa, Mahaiak 2002ko ekainaren 24an hartutako erabakiaren aurkakoa.

– Nafarroako Kontseiluaren irizpena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua antolamendu juridikoaren araberakoa izateari buruzkoa.


– Nafarroako Kontseiluaren irizpena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege Proposamenaren edukia

Foru Komunitatearen eskumenen barruan egotearen gainekoa.

31n:

– AEM erakundeko lehendakariaren idazkia, urriaren 4ko Batzar Orokor Berezirako gonbitea egiteko.

– Kataluniako Generalitatearen idazkia; haren bitartez, informazioa ematen du 2002ko irailaren 19 eta 20ko nazioarteko mintegirari buruz.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	